

Internet eta entzumen urritasuna: ikuspegi kritikoa

(The Internet and hearing deficiencies: a critical vision)

Amondarain, Mikel
Colegio Aransgui de Bergara
Karmengo Ama 71, 5º C
20012 Donostia

Correa, José Miguel
Euskal Herriko Unib.
Donostiako Irakasle Eskola
Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
Oñati plaza, 3
20018 Donostia

Informazioaren Gizartearen teknologietariko den Interneten ere, eskuragarritasunaren hesia topatzen dute entzumen urriko pertsonak. DBHko 9 ikasle, entzumen urrikoak eta Bergarako Aransgui Ikastetxean eskolatuak izan dira gure aztergaia. Egiaztatu ahal izan dugunez, informatika eta Interneten inguruko ezagupenak dituzte ikasleek, sare erabiltzen dute, baina ez dute benazko eran nabigatzen eta rol pasiboa hartzen dute ordenagailu bidezko komunikazio sinkronoan, eta horren arrazoia gaitasun linguistikoren arazoetan datzala deritzogu.

Giltza-Hitzak: Entzumen urriko pertsonak. Eskuragarritasuna. Internet. Gap digitala.

Dentro de las tecnologías de la Sociedad de la Información (TSI), Internet es otro nuevo medio donde los deficientes auditivos encuentran la barrera de la accesibilidad. Nuestro caso de estudio fue un grupo de 9 alumnos de ESO, deficientes auditivos, escolarizados en el Colegio de Aransgui de Bergara. Hemos constatado que los alumnos tienen conocimiento de informática e Internet, que utilizan la red, pero que no se da una forma significativa de navegar, y que asumen un rol pasivo en la comunicación sincrónica mediada por ordenador que nosotros atribuimos a los problemas de competencia lingüística.

Palabras Clave: Deficientes auditivos. Accesibilidad. Internet. Gap digital.

Au sein des technologies de la Société de l'Information (TSI), Internet est un autre moyen nouveau où les déficients auditifs rencontrent la barrière de l'accessibilité. Notre étude se porte sur un groupe de 9 élèves de ESO, déficients auditifs, scolarisés au Collège de Aransgui de Bergara. Nous avons constaté que les élèves ont des connaissances de l'informatique et d'Internet, qu'ils utilisent le réseau, mais qu'ils n'ont pas une façon significative de naviguer, et qu'ils assument un rôle passif dans la communication synchrone faite par ordinateur que nous attribuons aux problèmes de compétence linguistique.

Mots Clés: Déficients auditifs. Accessibilité. Internet. Gap digital.

1. TEKNOLOGIAREN LILURA ETA GORREN UTOPIA

Gogoan dut oraindik denbora asko ez dela, urte gutxi bartzuk jende espeziearen historiari erreparatzen badiogu, gure amonak esan zidana EE.BB.tako lehen astronautak ilargiratu zirenean: “*hor nonbait, mendiren batean izanen dira horiek imintzioak eginenez, ni ez naute engainatuko*”. Harriduraren hariduraz, gure amonak sinetsi ezin zuen balentria gertatzen ari zen gure begian aurrean. Gizakia ilargira iritsia zen. Aurrerapen teknologikoaren eta jakintzaren erakustaldia eta ikurra izan zen hura.

Ikusgarria, kilikagarria eta beldurgarria ere bada jende espeziearen jakintzaren bilakaeran azken urte hauetan gertatzen ari dena. Duela oso gutxi pentsaezinak zirenak, eromenak jotakoen burutan bakarrik posible zirenak, irudimen handi eta sortzaileenaren jabe zirenek ere imajina ezin zitzaizketenak, begien aurrean, eskura jartzen zaizkigu. Azken mende honetan eta zehazkiago azken 20-30 urte hauetan gehiago aurreratu du giza-jakintzak aurreko milurtetan baino.

Teknologiaren garapenak egin duen azken ekarpen bitxi eta erakargarrienetan Internet izan da. Internet komunikazioa, informazioa, formazioa, eztabaida... posible egin eta gauzatzeko aukera eskaintzen digun bitartekoa dugu, makina-pertsona, pertsona-makina-pertsona elkarrekintzak (interakzioak) ahalbidetuz. Komunikatzeko testuinguru berrien aurrean jartzen gaitu denok eta hezkuntza ez da eragin horietatik kanpo geratzen. Zergatik? Elkarrekintza delako gakoa egun indarrean dugun konstruktibismoaren paradigman. Elkarrekintzarik gabe ez gara garatzen. Elkarrekintza da jende espeziearen garapenaren erantzule nagusia, giltza. Gizakideen bitartekaritza da, konstruktibismoaren ikuspuntutik, aldagai edo faktore garrantzitsuenetarikoa bat garapen psikologikorako. Besteekiko harenak dira ezinbesteko motorra. Hizkuntza dugu zentzu honetan, gizakion arteko harremanak bideratzeko sortu eta moldatu dugun zeinu-sistematik emankorrena eta Internetek harreman eta elkarrekintza egoera horiek ugaritu eta indartzeko bidea eskaintzen digu.

Arestian aipatu dugu hezkuntza ezin dela teknologia berrien eta konkretuki Interneten eraginetik at geratu, izan ere, guztiz interesgarria gertatzen da T Berrien ekarpena hezkuntza arloan eta konkretuki hezkuntza bereziaren esparruan. T Berriek dimentsio berriak sortu dituzte eta euren abantaila ia guztiak H. Bereziko norbanakoen esku jari dituzte. Esan daiteke, T Berriek jende normala gauza bereziak burutzen jartzen dutela eta jende berezia gauza normalak egiten.

Hezkuntza bereziko ikasle gorrengan ere badu zeresana aipaturiko teknologiak. Jakin badakigu erabiltzaile potentziala ez ezik kontsumitzaile porrokatua ere badela gorren elkargoa. Gailu anitz dira elkargo honek darabiltzanak (Laura Pérez Avivar 1999), baina, bereziki komunikazioa ahalbidetzen dutenak dira desiratuenak, maitatuenak, komunikazioaren mugak gainditzea baita gorren elkargoak

duen sakoneko arazo garrantzitsuenak; inkomunikazioaren eta isiltasunaren kartzelatik, korridoretik, libre geratzea ametsa. Ekarpenean teknologiko oro itxaropenez eta antsietatez aztertzen da kolektiboaren aldetik, komunikatzeko zailtasuna eta honek berarekin dakarren isolamenduarekin hausteko baliagarri izango delakoan.

Testuinguru honetan kokatu behar dira gorren elkargoan ematen diren T Berriekiko kuriositate eta atxekimendua. Horrela ulertu behar da gorren artean nagusi den utopia, entzule bihurtzearena. Aurrerapen teknologiko oro, utopiaren lorpenerako bidean, urrats erabatekoa izango dela espero izaten da. Makinak entzumena ematea espero da. Hala uler daiteke koklea ezarpenak gorren elkargoan duen arrakasta. Geroz eta jende gehiago dago ezarpen hauetara prestatzen dena entzumena eskuratzeko, entzule bihurtzeko xedez; asimilazioa amets. Alabaina, usteak erdi ustel, teknologia bitarteko bat besterik ez dela aiantzi egiten dugu. Lagun gaitzakeen bitarteko garrantzitsua, baina ez ezinbestekoa; bitartekoa eta ez helburua. T Berriek hitz egiteko, elkareragiteko aukera gehiago ematen digute, ez ordea, hitza. Hitza geurea dugu ez da makinarena. Sortzaile geu gara eta ez makina

El implante es para siempre y se realiza por una efracción del cuerpo de los niños jóvenes provocando la irrupción de un nuevo tipo de sensaciones. Al contrario de lo que prometían los cirujanos, no se trata de la cura de la sordera sino de una nueva forma de sordera que abre al sujeto sonidos “inauditos”. (Jacques et Marie Françoise Laborit) (1999)

Ez, teknologiak ez ditu gaurdaino gorren muga organiko eta sentorialak gainditu (agian egunen batean, baina hori beste upel bateko sagardoa da) eta hezkuntzaren ikuspuntutik ezin gara teknologiaren lilurapean itsuturik bizi, ezin diogu muzin egin egungo gorren egoerari.

2. GORRERIAREN ARAZOARI HURBILDUZ

Entzuleon komunikazio oinarria ENIZUN-ESAN da. Hizkuntzari dagokionez aho-hizkuntza da gurea. Entzumena du oinarri. Goren entzumenik ez izatean, ez dute guk bezala automatikoki bereganatzen aho-hizkuntza, aitzitik, ederki kostata ekin eta ikasi egin behar izaten dute, azkenik, askotan, trakets eta baldar aritzeko. Honen guztiaren eragina da, esaterako, unibertsitatera ikasle gorren % 1,9a bakarrik iristen dela, gor gehieneak kualifikazio eskaseko lanpostuetan daudela (Diaz-Estebanez 1996). Ildo beretik, halaber, Conrad-ek (1979an) hamabost hamazortzi urte bitarteko 468 gorrekin irakurketa gaitasuna neurtzeko ikerketa batean, bataz beste bederatzi urteko (9 urte) haur baten gaitasun maila frogatu zuen gor-talde honetan. Ekoizpen idatzari dagokionez, Myklebustek (1977) frogatu zuen hamazortzi urteko gorren morfosintaxi maila zortzi urteko ume entzule baten parekoa dela.

OHOKo 106 ikasle gor aztertu zituen, modu berean, Asensiok (1989an) eta beste estatutan

ematen diren antzeko datuak jaso zituen. Antzeko emaitzak lortu dira azken hamarkada honetan Valenciako Audiofonia Institutuak buruturiko ikerketan 80 dezibeliotik gorako galera duten aurrekin. Aztertutako %15 soilik hurbiltzen da ulermen maila funtzionalera.

Eta oraindik orain, Villalva, Ferrer eta Asensik 1997an egin berri den ikerketan frogatu da unibertsitari gorren arrakastak zerikusi zuzena duela irakurtzen darakusatzen gaitasun mailarekin, alegia, koerlazio estua dagoela arrakasta eta irakurtzeko gaitasunaren artean. Esan nahi baita, bakarrik entzuleen pareko irakurketa gaitasuna dutenak iristen direla unibertsitatara.

Gorren irakurketa prozesuen ikerketan, Mikel Asensio (1989) eta Alegria (1985) nabarmendu zaizkigu, baina, esan daiteke, entzumen urritasunak prozesu hauetan suposatzen duen oztopoa, oraino, ia gaindiezina suertatu dela bereziki gor sakonen kasuan.

Zeinu-hizkuntza berezko ezaugarriak dituen hizkuntza denik eta lagungarri gertatzen denik ez dago zalantzarik (Martxesi). Alabaina bestelako kodea da, irakuridatz daitekeena, eta informazioa orohar kode horretan dugu jaso gure zibilizazioan.

Hitz gutxitan: entzumenezko sarrera neurosensorialaren gabeziak eragin nabarmena duela aho-hizkuntzaren bereganatzean eta irakurketa-idazketa gaitasunetan; ondorioz gorren aho-hizkuntza txirotu egiten da eta honek txirotu egiten ditu bere elkarrekintzak (interakzioak) eta bere garapenerako honen garrantzizkoak diren gizarte-harremanak, ezagutza prozesua hankamotz geratzen delarik.

Hau guztia kontutan hartuta, teknologiaren uholdearen aurrean kokatzen da gorren elkargoa. Baina, nola? Nola konpontzen da teknologia horren aurrean? Ezagutzen du? Baliatzen da? Nola? Zertarako? Zer nolako harremana sortzen da? Abegitsua da sarea gorrekin? Galdera horien erantzun asegabetik abiatzen da eskuarte duzun ikerketa lan hau.

3. IKERKETARAKO METODOLOGIA: HIPOTESIAK

– Ikasle gorrek Informatika ezagutzak dituzte eta badute Interneten berri. Batean zein bestean funtzionalak dira.

– Ikasle gorrek Internetek elkarrekintzarako eskaintzen dituen hainbat aukera baliatu egiten ditu hiru dimentsiotan: kontsumitzaile, erabiltzaile eta ekoizle gisa; horrela, guztiz normala izanen da informazioa lortzeko, e-mailez mezuak gurutzatzeko, jolasteko, txateatzeko, eztabaidatzeko, erosteko... erabiltzea.

– Alabaina, entzumen urritasunak modu esanguratsuan eragiten du gorrek Internetetik dituen ezagutza, jarrera, praktika eta Internet bidez dituen hartu-emanetan (elkarrekintzetan):

- Hizkuntzaren garapenak eragin zuzena du gertatzen diren elkarrekintzetan (“norbanako-makina”, “norbanako-makina-norbanako”). Hizkuntza arazoak direla medio, zailtasunak izanen dituzte “sarean” mezu idatziak ulertzeko, baita, nabigatu eta aplikazioak erabiltzeko.

- Hizkuntzaren urriak berarekin dakarren Informazio-formazio falta dela kausa, bazterketa, bereizketa gertatzen da, norbanako gorra kaltetua suertatzen delarik. Bazterketa bikoitza: batetik hizkuntzaren garapen txikiak ezartzen duen mugagatik eta bestetik teknologia berrien ezagutza faltak ezarritakoagatik.

– Web orriak, oro har, ez daude egokituta gorren elkargoarentzat oinarrikoa den hizkuntzaren alorrean.

4. FROGAREN BALDINTZAK

1. Elkarrizketa erdi egituratua erabili dugu ESoko bigarren zikloan ikasten diharduen ikasle talde batekin (9 lagun). Kasu batean, ikasleak maila ertaineko modulu batean dihardu, beraz, guttura (10) hamar lagun.

2. Taldea ez da homoginoa izan gorrieria mailari dagokionez, esan nahi baita, gor sakonak zein arinak elkarrizketatu ditugula. Gorrieriaz aparte, bestelako urritasunik ez duten norbanakoak dira.

3. Meningitisak jota urtebete zituenean gor geratu zen bat ezik, gainontzekoak jaiotzetik dira gor: Etiologia ezezagunekoak eta bat izan ezik (aita gor arina duena), aurrekaririk gabe sendian.

4. ESoko bederatzi ikasleek, integrazio zentroan burutzen dituzte ikasketak (modu ezberdinez), formakuntza espezifikoak ere jasotzen dute. Irakasle laguntzaileak dituzte, kasu denetan zeinu-hizkuntzan gutxieneko prestakuntza-trebakuntza ikastarok burututa dituztelarik.

5. Elkarrizketak bideo euskarrian grabatu dira.

6. Elkarrizketa burutzerako orduan ikasle bakoitzaren komunikazio premiei erantzuten saiatu gara, ulertzeko arazorik gerta ez zedin. Sistema bimodala da nagusiki erabili duguna.

7. Elkarrizketatuetan batek ez du irakurtzen ezta ere idazten. Hala eta guztiz ere, froga pasa diogu interesgarria zelakoan, eta horrela gertatu da emaitzetan ikus ahal izango dugunez.

8. Bi lekutan egin dira elkarrizketa guztiak: Aransgik Bergaran eta Donostian dituen egoitzetan.

9. Lanaren amaieran eranskin gisa duzu eskuera galdeketa osoa eta bertatik lortutako erantzunen entresaka zeinetatik atera ahal izan ditudan ondorioak.

5. ONDORIOAK

Gure lehen hipotesiari dagokionez, baieztatu egiten dela esan dezakegu, hau da, ikasle gorrek badituzte informatika ezagutzak eta badute baita ere Interneten berri. Teknologia berrien uholdeak harpatu ditu, nolabait esatearren, eta eskolan zein akademiatan gutxieneko formakuntza jaso dute. Erabiltzaile funtzional arruntak direla esango nuke.

Zein da ezagutza horren maila? Zer nolakoa da ezagutza hori? Erabiltzaile gisa, Word testu prozesatzailea dute ezagunena, Point delarik marrazkiak eta grafikoak egiteko erabiliena. Hortik aurrera, aditza bakarrak dituzte Excell, Access, Adobe eta hainbat programa.

Erabilpen maila horren kantitatea eta kalitatea neurtzeak beste hainbat ikerketarako gaia ematen du. Aplikazio informatikoetan gorren elkargoak ematen dituen ekoizpenen neurketa, ekoizpen horien nolakotasuna, prozesuan sortzen diren arazoak antzematea, arazo horien konponbiderako bide berriak asmatzea eta jorratzea ezinbesteko dira benetan informatika gorren elkargoari lagungarri gerta dakion.

CDak erabiltzen dira, nagusiki bi zereginetan: jolasteko eta kontsultak egiteko.

Bigarren hipotesia mamitsuagoa eta korapilatuagoa ere gertatu zaigu, izanez ere, ikasle gorren jarduera hiru dimentsio ezberdinetan ezagutu nahi izan dugu. Gure elkarrizketatuek emandako datuen arabera, esan daiteke, aipaturiko hiru dimentsioetan baliatzen dituztela Internetek hartu-emanetarako (elkarrekintzetarako) eskaintzen dituen aukerak; modu berezian gertatzen da, alabaina, hartu-eman.

Eta honela bete-betean sartzen gara hirugarren hipotesiaren azalpenean. Helbideetan sartu, aurrera-atzera ibili, helbide berrietan sarrera egin, loturak bilatu eta abarretarako inongo eragozpenik ez dute. Nabigatzeak duen *alderdi mekanikoan* kapitain itxurosoaren traza erakusten dute; ez ordea, *modu esanguratsuan* nabigatzeko garaian. Orduan azaleratzen dira benetako korapiloak eta entzumen urritasunak maiz berarekin dakarren hizkuntzaren “rakismoa”, berau dela kausa, kontzeptu ezezagun ugari topatzen ditu gorrek, testu asko eta asko erdizka ulertzen ditu, beste batzuk gaizki, hainbat modu nahasian... azkenean asperduran murgiltzen delarik.

Horrela: e-maila, txata, foroak, eztabaida lekuak... hau da, Internetek elkarrekintzarako, hartu-emanetarako eskaintzen dituen guneak, irakuridatz prozesuetan kompetentea izatea eskatzen dutenak, debekatua zaie hala ez direnei. Parrafaldi batean 6-7 kontzeptu ezagutzen ez duen norbanakoak, ezin du inolaz ere ulertu haren esanahia. Horixe bera parrafaldiz parrafaldi gertatuz gero, testu batek esanguratsutik izan dezakeena hutsaren parekoa da. Irudia, ikonoa, ez da oztopo; testua, hipertestua da benetako oztopo, muga.

Nire azterketaren arabera, beraz, badirudi, baietsi egiten dela hirugarren hipotesia, hau da, entzumen urritasunak modu esanguratsuan eragiten duela norbanako gorrek internetekiko duen hartu-eman. Informazioa ulertzeko zailtasunak azaltzen dira maiz; eta hizkuntzaren urriak, raktismoak, berarekin dakarren informazio-formazio falta dela medio, bereizketa, bazterketa gertatzen da norbanako gorrekin. Pizgari, kilikagari, elkarrekintza zirikatzaile, aberasgarri, hezitzaile, garatzaile izan beharko lukeena, eskuragaitz, oztopoz josirik topatzen dute, ez da abegitsua, aitzitik, erasokor portatzen da eurekin. Horrela ulertzen da e-mailaren erabilera eskasa edota txat-etan, eztabaida guneetan mantentzen duten jarrera pasiboa.

Gure hipotesien azken puntua, halaber, baietsi egin da. Sareak ez ditu kontutan pertsona goren berezitasunak, ezta hauetatik sortzen diren beharrak. Badira web-ak gorrekin zerikusia duten gaiak herabeti plazaratzen dituztenak: hiztegi daktilologikoa, zeinu-hiztegirako sarrera-lotura, elkargoaren zat intereseko informazioa..., baina beldur naiz entzuleon irizpide eta ikuspuntutik sortunekoak direla, gorreari berarekin dakartzen arazoak kontutan izan gabe, egokitzen nahiñorik gabe.

6. GOGOETARAKO BITXIKERIAK

1. Behin eta hasteko, ikasle berezi baten kasua aipatu nahiko nuke gogoetagai gertatu zaidalako. Uste dut merezi duela, mekanikoki funtzionala izatetik modu esanguratsura egon daitekeen aldea hobeto ulertzeko.

Delako ikasleak zeinu-hizkuntza darabil komunikatzeko (eskolan eta lagunarte gorrean), etxean imintzioa da gehien darabilena. Esan daiteke, hortaz, analfabetoa dela. Ordenagailuaren aurrean esertzen denean, berriz, harrigarria da. Mekanikoki funtzionala da, sartu, irten, helbidez aldatu, atzera-aurrera, programak kopiatu, jaitsi, ikonografia ezagutu... azkar eta ondo baliatzen du ordenagailua testurik ulertu behar ez duen bitartean. Badaki zertarako den bilatzailea, e-maila ere ezagutzen du eta badaki zertarako den, nahiz eta berak irudi artxiboak bidaltzeko darabilen bakarrik (animazio laburrak, argazkiak, marrazkiak...).

Beldur naiz hori bera gerta dakiokela, neurri batean, goren arteko bati baino gehiagori eta topatu dugu holakorik. Elkarrizketatu gehienak *mekanikoki funtzionalak* izan dira, funtzionaltasunak, ordea, behetik jo du hizkuntza arazoak sortu direnean.

2. Elkarrizketetan zehar ohartu nahiz e-maila, foro eta gisakoetan gutxitan hartzen duela parte pertsona gorrek, jeneralean jarrera pasiboa mantentzen du. Badirudi erabilera aktiboa egiten duenean, hau da bitxikeria, bakarrik beste gorrekin komunikatzeko izan ohi dela. Endogamiazko jarrera honetatik haratago, bestelako arrazoia dagoenaren susmoa pizten zait. Pertsona gorrek, jakin badaki “irakuridatz” lanetan ez dela jeneralean entzulea bezain iaioa. Gure hiztegia, sintaxia, hizkuntza egi-

turak arrotz zaizkio; bere zailtasunen jakitun da eta maiz, idazteko orduan, atzera jo ohi du edota lotsatu egin bide da. Idatzizko lanetan duen kompetentzia faltaren jakitun izate hori komunikaziorako beste hesia da, hesi, muga, oztopo baztertzaila. Gorrak bere buruari ezartzen diona. Bazterketa psikologikoa edota *autobazterketa* deituko genukeen hau, arestian analfabetismo teknologikoak eta linguistikoak ezarritakoei gehitzen zaie, gainditzen oso zaila den inkomunikazio horma eraikiz.

3. Batek ez du bere burua gortzat hartzen eta beste batek ez du identifikatzen zeinu-hizkuntza berea bezala.

- (Ai).- *“yo también quiero que haya una clase como de inglés pero en LLSS, pide que la pongan”.*
 Mikel.- *Yo, yo no soy sordo. Quien tiene que pedirlo eres tú y yo te apoyaré.*
 (Ai).- *Yo tampoco soy sorda*

“segunda lengua” zer ote den galdetzen diot (Itz)-ri.

- (Itz).- *“otra lengua”.*
 (Mikel).- *¿Cuál es tu primera lengua?*
 (Itz).- *“Castellano”.*
 (Mikel).- *¿Y la segunda?*
 (Itz).- *Euskera.*

Ez du identifikatzen LLSS neuk aditzera eman arte. Gero zuzendu egiten du aurrekoa eta dio:

- (Itz).- *“primero castellano, luego LLSS y luego euskera”.*

Honek guztiak axolazko gai bi lausotzen ditu, nire iritzian guztiz inportanteak direnak gorren elkargoaren garapenerako. *Nortasun gorra* garatu gabe dagoela oraindik. Ez dago oraindik identitatea sustatu eta indartuko duen ereduunik, kohesio falta sumatzen da.

“Ez dago bi gor berdin topatzerik” dio jende askok, baina, gauza bera esan daiteke entzuleez, alabaina, entzuleok ereduak ditugu, gure unibertso simbolikoa sortzen dugu eredu horiekin elkarrekin-tzan, kultur elkargo jakin baten partaide sentitzen gara inork ukatzen ez digun gure bakantasunean; alegia, norbanako izateari utzi gabe, talde, elkargo bateko dugu geure burua. Gorek ez dute nire iritzian horrelako erreferentzia garatu eta garbirik, horregatik diot kohesio beharra dutela. Horrela sortzen dira identifikazio arazoak, nongoa naizen, nire burua zein taldetan kokatzen dudana zehazteko auziak..

Hau, jakina, ez da arrazoi bakarra, badira beste aldagai batzuk jokoan, hala nola eredu entzulea jarraitzeko familiaren eta ingurumariaren presioak, ezberdin sentitu nahi ez izatearena... hala eta guztiz ere, guk aipaturikoa kontutan hartzeko modukoa delakoan nago.

Baiki, gorren elkargoaren nortasuna, identitatea suspertuko duen elementu indartsuenetarikoa hiz-

kuntza da, horrela gertatzen da munduko bestelako komunitateetan ere, zentzu honetan, *zeinu-hizkuntza eta zeinu-hizkuntzaz buruturiko komunikazioa ezinbestekoa da banakako garapenerako ez ezik elkargoaren kohesiorako.*

Alfabetatze linguistikoa eta teknologikoa beharrezkoak dira, garrantzitsuak oso, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatzeko, baztertarik gerta ez dadin; zeinu-hizkuntza erabiltzea garrantzitsua bainoago ezinbestekoa. Ez dirudi, egiazki, “sarean” hau kontutan hartzen denik, ezta espreski gorrei zuzenduriko guneetan ere. Nolatan nahi dugu orduan, zeinu-hizkuntza bere-berea sentitzea? Nola lortuko da elkargoaren nortasuna eta kohesioa indartzea eta sustatzea? Osatzen duten norbanakoen errealitatea ahantzita entzuleen maila eta erduei jarraikiz? Nola deritzo hori, integrazioa? Nire herrian beste izena du, asimilazioa.

4. Bada beste kontua, gogoetarako proposa izan daitekeena, ziberespazioaren izaera bitxiak sortarazten duena, euskari fisikoaren ezatik eratortzen dena, *mesfidantza* alegia. Badirudi *ziberespazioa mesfidantza iturri* ere badela. Eros daitekeela jakin arren inork ez du ahaleginik txikiena ere egin eta bestalde, hartu-emanetan aurrez-aurrekoa bezalakorik ez da oraino. Ikus zer dioen ikasleatariko batek:

- (Ai).- *“Para curiosar en el chat”*
 (Mikel).- *¿Te gusta leer lo que dicen los demás?*
 (Ai).- *“Si no conozco sí, si conozco no me gusta”*
 (Ai).- *¿por qué no participas en los chat?*
 (Ai).- *“no me gusta, igual no conozco, igual me engaña o algo y qué?”*
 (Mikel).- *Explícame más*
 (Ai).- *“p.ej. yo igual tengo 15 años y la otra persona tiene 30 y me dice que tiene 17, no me gusta”*

Seguruenik lehen aipaturiko idatzizko kompetentziaren arazoa ere azaltzen da hemen; errezeloa eta mesfidantza ere bai ala?

5. Sakelako telefonoa dela eta. Ikusita gailua hartzen ari den indarra eta laburduraz jositako hizkuntza erabilpena sustatzen duela, oso praktikoa gertatzen zaio pertsona gorrari. Baina, laburdurak modu esanguratsuan erabili ahal izateko ez al da hizkuntza horretan kompetentea izan behar?

6. Azkenik eta amaitzeko, oso bitxia, lagunekin ateratzea askoz ere gehiago baloratu dute. Hau da % 100ean lehenetsi duten aukera, teorikoki oso erakargarriak diren bederatziren artean.

7. AHOLKUAK

Informazioa modu argi, garbi, zuzen eta zehatzean eskuratzea dugu gorren elkargoaren arazo elarretakoa. Hartu-emanak eta bitzitza bera modu esanguratsuan baldintzatzen dituen arazo hau, alabaina, ez da soilik aurrez-aurreko elkarrekin-tzetan gertatzen, baita komunikabideen bitartez ematen

direnetan ere. Internet bitarteko berria, itzaropenez begiratzen du gorren elkargoak. Jarrera baikor honek tupust egiten du, hala ere, edukia ulertzeko gorrek dituzten zailtasunekin.

Beri orok sortzen duen erakargarritasuna ere hedatu da gorren artean Internet dela eta, baina, errealitateak erakusten digu, informazioa bilatzeko, ulertzeko, trukatzeko, baliatzeko..., teknologia berri honek eskaintzen dituen aukerak ezin dituela bete-betea baliatu pertsona gorrek, askotan erabileraren mekanikora eta esanguratsutik gutxi duenera mugatzen delarik.

Komunikazioaren kalitatearen alorrean, gorren elkargoaren integrazioan Interneten ekarpena, handiagoa, nabaria, izan dadin saiatu beharra dago; zentzu honetan guztiz beharrezkoak ditugu nire intziz:

a. Alfabetatze bikoitza: teknologikoa eta linguistikoa.

Autonomi Elkargoan populazioaren herenak du jadanik konexioa Jaurilantzak sustaturiko "konekta zaitez" kanpainaren ostean. Norbaitek pentsatu al du, ordea, kontua ez dela ordenagailuak saltzea soilik? Jendeari formakuntza ere eskaini behar zaio, horretaz dihardut alfabetatzeaz ari naizenean. Argi eta garbi dago gorren kasuan alfabetatzeak berebiziko garrantzia duela.

b. Web eskuragarria denontzat. Diseinua ez dadila izan denon informazio-eskubiderako traba. Komunikazio eragile izan bedi, izan ere, inon ez dagoen, existitzen ez den erabilzaile estandar bati begira sortzen eta diseinatzen dira Web-ak. Gizartea osatzen dugun pertsonen aniztasunarekin zerkusirik txikiena ere ez dutena. Honen haritik esango nuke aldarikatu beharra dagoela sarearen eskuragarritasuna eta gaineratuko nuke, ezinbestekoa dela gorren elkargoari begira arkitektura teknologiko egokitu baten eraikuntza zeinak lan honetan zehar aipatu ditugun gorren berezitasunak eta beharrak kontutan izango dituen.

c. Delako azpiegitura teknologiko berria, beste arkitektura pedagogiko baten euskarri izan behar luke; ardatz beraren inguruan sinergiak bilduko dituen arkitektura; pedagogoz, pertsona gorrez, hauen hezkuntzan adituez, gorren familiarterako eta lagunez osatua. Honela bermatuko genuke eskuragarritasuna, gorren beharizan eta berezitasunetara egokitutako Elkargo edota Komunitate Birtuala sortuz.

Albistegia "on line", formakuntza ikastaroak, gai eta informazio espezifikoak... finean aipatutako pedagogia taldeak diseinaturiko edukiz hornitu eta elikatuko litzateke Komunitate Birtuala eta nire iritzian honako zutabeetan oinarritu beharko litzuzke:

d. Ulermen eragozpenak kontutan hartuta, edukia egokituta egongo dira ezagutzen dugun errealitateera. Errazak eta eskuragarri izango dira entzumen urritasuna jasaten dutenentzat.

e. Edukietan Zeinu-hizkuntzaren erabilerak lehenatasuna izanen du. Arazoak arazo, gure jarrera Zeinu-hizkuntzaren erabilerarekiko positiboki diskriminatzailea izan bedi. Behin eta hona iritsita, oinarritzakoa, guztiz inportantea deritzot:

- "esatari zeinatzaille birtuala" paratzeari. Honen garapenerako Ikerketa programak martxan jarri behar dira ahalik eta azkarren.
- Alegria eta Asensioak proposaturiko segmentazio grafemo-fonetikoa lantzeko programa berezien ikerketa eta prestakuntzari.

f. Gisa honetako Elkargo Birtualak, konponbidean jarriko luke zalantzarik gabe aipatuta utzi dugun kohesio faltaren arazoa, goren eta hauen ingurunean, hau da, familiarterako, lagun eta profesionalen artean erreferentzia ezinbestekoa izango bailitzateke. Era berean identitatea ere sustatu eta indartuko luke elakoan nago, norbanako gorra berezko identitatea duen elkargo bateko kide sentiarazteko indarra izango duen heinean.

g. Azkenik eta amaitzeko, kontutan izanda gorren elkarrekintzetan ikusmenak duen garrantzia eta elkargoaren ama hizkuntza Zeinu-hizkuntza dela onarturik, komunikazioa ahalbidetzeko eta errazteko Web Cam deritzan erabileraren masiboa aholkatzen dut. Honela komunikazioa kantitatez zein kalitatez aberastu egingo da; pertsona gorren hala banakako nola taldekako hartu-emanak Zeinu-hizkuntzan burutu ahal izango da eta. Elkarrekin, ikasle gorrek dituzten ikastetxeak, zerbitzu publikoak (ospitale...) jadanik martxan diren telefono bidezko bitartekaritza zerbitzua eta abarrek, gorren elkargoaren zerbitzurako, giza baliabide eta azpiegitura teknologiko egokiz hornitu behar dira.

BIBLIOGRAFIA

- ALEGRIA, J. (1985) "Por un enfoque psicolingüístico del aprendizaje de la lectura y sus dificultades" *Infancia y Aprendizaje*, 19: 79-94.
- ASENSIO, M. (1989). "Los procesos de lectura en los deficientes auditivos". Doktoradutza Tesia. Psikologia Fakultatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
- ASENSIO, M.; CARRETERO, M. (1990) "Los procesos de lectura en los niños sordos" *Anuario Español e Iberoamericano de Investigación en Educación Especial*. Madrid, CEPE, 267-332 orri.
- BAKER, CH.; COKELY, D. (1980) *A Teacher's Resource Text on Grammar and Culture*. Silver Spring: T.J. Publishers Inc.
- BEST, B.; ROBERTS, G. (1976) "Early cognitive development in hearing impaired children" *American Annals of the Deaf*, 121: 650-664.
- CONRAD, R. (1979) "The Deaf Schoolchild: Language and Cognitive Function". Londres. Harper and Row.
- CHARLIER, B.L.; HAGE, C.; ALEGRIA, J.; PÉRIER, (1990) Evaluation d'une pratique prolongée du LPC sur la compréhension de la parole par l'enfant atteint de déficience auditive, *Glossa* n° 22, 28-39.

- DIAZ-ESTEBANEZ, E. (1996) Las personas sordas y su realidad social. Un estudio descriptivo. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid.
- ELKONIN, D.B. (1978) "Psicología del Juego" (errusieraz), Mosku. Ed. Pedagógica. Gaztelaniara Pablo del Rio k itzulia. (1980) Madrid.
- KYLE; WOLL, B. (1985) "Sign Language. The Study of deaf people in their language". Cambridge University Press.
- HEZKUNTZA SAILA (2000) "Informe de la Comisión sobre escolarización de personas sordas. Modelos educativos y organización de la respuesta".
- LABORIT, JACKES; MARIE FRANCOISE. (1999) In "El Niño" *Revista del Instituto del campo Freudiano*. Nº 6, pag. 88.
- LURIA, A.R. & YUDOVICH, F. IA (1984) "Lenguaje y desarrollo intelectual en el niño" Siglo XXI de España Editores. (1984) Madrid
- MARCHESI, A. (1978) "Lenguaje, imagen y operación". Estudio comparativo entre sordos profundos y oyentes. *Revista de Psicología general y Aplicada*. 150: 33-46.
- MARCHESI, A.; ASENSIO, M.; IGLESIAS, L. (1979) "Estructura combinatoria y comprobación de hipótesis en adolescentes sordos profundos" "Psicología escolar; Infancia y aprendizaje" Kongresuan aurkezturiko ponentzia.
- MARCHESI, A. (1987) "El desarrollo cognitivo y lingüístico de los niños sordos" Alianza Editorial. Madrid.
- MASSARO, D.W. (1987) "Speech Perception by ear & eye". In B. Dodd & R. Campbell (Eds.) *Hearing by eye: the psychology of lip-reading*. London: Lawrence Erlbaum Ass.
- MEADOW, K.P. (1980) "Deafness and Child Development". London. Edward Arnold.
- MILLS, A.E. (1987) "The development of phonology in the blind child". In B. Dodd & R. Campbell (Eds.) *Hearing by eye: the psychology of lip-reading*. London: Lawrence Erlbaum Ass.
- MYKLEBUST H.R. (1977) "Psicología del sordo" Madrid: Mensajero, 1977.
- OLERON, P.; HERREN, H. (1961) "L'acquisition des conservations et le langage: Etude comparative sur des enfants sourds et entendants". *Enfance*, 1961, 3, 201-219.
- PÉREZ AVIVAR, L. (coord.) (1999) "Monográfico de ayudas técnicas para personas sordas" Grupo Editorial Univesitario. ASPRODES. Granada
- RODRÍGUEZ GONZÁLEZ, M.A., (1992) "Lenguaje de Signos" CNSE. Madrid.
- RODRÍGUEZ SANTOS, J.M. (1990): "La deficiencia auditiva: un enfoque cognitivo". Universidad Pontificia de Salamanca.
- SACKS, O., (1991) "Veo una voz" Viaje al mundo de los sordos. Anaya. Madrid.
- SILVESTRE, N. (1998) "Sordera, comunicación y aprendizaje" Barcelona. Masson.
- VALMASEDA, M. (1990) Problemas de lenguaje en la escuela. Madrid "Desarrollo psicológico y educación, Necesidades educativas especiales y aprendizaje escolar" Madrid. Alianza Psicología.
- VALMASEDA, M. "Los Sistemas alternativos de comunicación sin ayuda" "Sistemas alternativos de comunicación" (1993) Trotta Argitaletxea. 3. atala (89-154 orriak)
- VILLALBA, A.; FERRER, A.; ASENSI, M.C. (1997) "La Comprensión Lectora de Universitarios con Déficit Auditivo"
- VYGOTSKY, L.S. (1993) "Pensamiento y lenguaje" Buenos Aires. Ediciones Fausto.